BESTELAKO XEDAPENAK

HERRIZAINGO SAILA

3548

AGINDUA, 2011ko uztailaren 11koa, Herrizaingoko sailburuarena. Honen bidez, genero-indarkeriaren biktimei laguntza, elkartasuna eta babesa emateko zerbitzua sustatzen duten erakunde eta elkarteentzako laguntzak arautu eta laguntza horien deialdia egiten da.

Genero-indarkeriak giza eskubideak eta emakumeen funtsezko askatasuna urratzea dakar; ondorioz, emakumeek ezin dute gizartean bete-betean parte hartu, ez eta beren giza potentziala garatu ere.

Genero-indarkeriak emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun-egoera estrukturala du oinarri, eta, horrenbestez, erantzun integrala eta jakintza-arlo anitzekoa behar du.

Bide horretan, genero-indarkeriaren biktimentzat abian jarritako programak, erakunde publikoek ez ezik, irabazi-asmorik gabeko erakunde eta elkarteek ere lantzen dituzte.

Erakunde horiek zerbitzuak emateko dituzten ekonomia-beharrizanak kontuan hartuta, Herrizaingo Sailak, agindu honen bidez, genero-indarkeriaren biktimei arreta, babesa eta laguntza emateko egintzentzako laguntzak arautu ditu.

Horri jarraiki, hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.- Xedea.

1.- Agindu honen xedea da Eusko Jaurlaritzak, Herrizaingo Sailaren bidez, 2011. urterako emango dituen diru-laguntzak arautzea, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei babesa, laguntza, konpainia, laguntza juridiko eta psikosoziala, laneko orientabidea eta laneratzea bera emate aldera proiektuak eta jarduerak egiteko, eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen aldeko beste edozein jarduera egiteko. Horiez gain, diruz lagunduko dira genero-indarkeriaren adierazpen guztiak prebenitzeko eta herritarrak genero-indarkeriaren alorrean sentsibilizatzeko proiektu eta jarduerak ere.

2.- Genero-indarkeria da emakumearen aurkako indarkeria oro, honela definituta: «sexuagatiko indarkeria-egintza oro, emakumeari kalte fisikoa, sexuala edo psikologikoa nahiz sufrimendua eragiten diona edo eragin liezaiokeena, bizitza publikoan nahiz pribatuan gauzatzen dena; horien barruan sartzen dira egintza horiek gauzatzeko mehatxu egitea, derrigortzeak edo askatasun-gabetze arbitrarioak».

3.- Diruz lagunduko diren eta agindu honen babesean dauden proiektu eta jarduerak 2011ko ekitaldian egin beharko dira.

2. artikulua.- Definizioa.

1.- Agindu honen ondorioetarako, kontzeptu hauek bereizten dira:

1.1.- Proiektuaren guztizko kostua: proiektua gauzatzeko zenbateko osoa.

1.2.- Onartutako zenbatekoa: genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak, aurkeztutako proiektua aztertu ondoren, erabakitzen duen zenbatekoa. Proiektuaren kostu osoa izango da, edo, hala badagokio, baxuagoa, agindu hau ezarrita diruz laguntzekoa ez den zenbatekoa kendu egingo baita.

1.3.- Diru-laguntzen zenbatekoa: gehienez ere, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak onartutakoaren % 75 izango da.

1.4.- Erakundeak justifikatu beharreko zenbatekoa: erakunde onuradunak «onartutako zenbateko» osoa justifikatu beharko du.

3. artikulua.- Diru-hornidura.

1.- Diru-laguntzak Herrizaingo Saileko Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren 2011ko aurrekontuaren 11.0.1.02.04.0000.1.454.99.22110.001/Q diru-sailaren kontura finantzatuko dira. Agindu honetan ezarritako diru-laguntzak finantzatzeko laurehun mila (400.000) euro jarriko dira guztira.

2.- Diruz lagunduko diren proiektuak aukeratzeko, agindu honen 9. artikuluan ezarritako balorazio-irizpideak hartuko dira kontuan.

4. artikulua.- Erakunde eta elkarte onuradunak.

1.- Agindu honen helburu diren laguntzak jaso ahal izango dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko irabazi-asmorik gabeko erakunde eta elkarteek, baldin eta horien helburua eta xedea agindu honen 1.1 artikuluan xedatutakoak badira.

2.- Ezingo dute deialdian parte hartu laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratibo edo penala duten erakunde edo elkarteek, ez eta horretarako gaitasuna kentzen dien legezko debekuren bat dutenek ere, sexu-bereizkeriagatiko debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean ezarritakoarekin bat etorriz.

3.- Erakunde eskatzaileek egunean izan beharko dute Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak diru-laguntza eman aurretik jasotako diru-laguntzen justifikazioa.

4.- Erakunde eta elkarte eskatzaileek baldintza hauek bete beharko dituzte:

Xede eta helburuen artean, estatutuetan, jasota egotea genero-indarkeriaren biktimei arreta, laguntza juridiko edo psikologikoa, konpainia, laneko orientabidea eta laneratzea bera, prestakuntza edo informazioa ematea, edo, bestela, froga bidez egiaztatzea, zuzenbidean onartutako edozein bide erabiliz, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako proiektuak edo programak egiten eta gauzatzen esperientzia dutela azken bost urteetan aipatutako eremu horietan.

Proiektua gauzatzeko behar diren azpiegitura, ekipamendu eta giza baliabideak edukitzea, eta hori hala dela egiaztatzea, zuzenbidean onartutako edozein bide erabiliz. Egiaztapen hori eskabideari erantsiko zaio.

5. artikulua.- Laguntzak elektronikoki izapidetzea.

1.- Erakunde eta elkarte interesdunek bitarteko elektronikoak erabilita egin ahal izango dituzte eskabidea, kontsultak eta izapide guztiak.

2.- Laguntza hauek izapidetzerakoan bitarteko elektronikoak erabiltzeko modua honako legearau hauek xedatzen dute: abenduaren 18ko 232/2007 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoko

Administrazioaren prozeduretan baliabide elektronikoak, informatikoak eta telematikoak nola erabili behar diren arautzen du), apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamendua ezartzen ditu) eta Informatika eta Telekomunikazioetako zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpenak (E- Administraziorako Plataforma Teknologikoa –PLATEA– sortzen duen agiria onartzen du).

3.- Diru-laguntza hauen izapideetan bitarteko elektronikoak erabiltzeko jarraibideak Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren egoitza elektronikoan argitaratuko dira.

4.- Eskabidea aurkezteko bitarteko elektronikoak, informatikoak eta telematikoak erabiltzeak ez du ekarriko berekin prozedurako hurrengo izapideetan ere nahitaez bitarteko horiek erabili behar izatea. Gainera, erakunde interesdunak jakinarazpenak bitarteko telematikoz egiteko eman duen adostasuna baliogabetu ahal izango du; hori egin nahi izanez gero, organo eskudunari adierazi beharko dio eta aurrerantzean jakinarazpenak non jaso nahi dituen zehaztu beharko du, administrazio prozeduretan baliabide elektronikoak, informatikoak eta telematikoak nola erabili behar diren arautu duen abenduaren 18ko 232/2007 Dekretuko 4.4 eta 21.2 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz.

5.- Jakinarazpenak, izapideak egiteko moduaren arabera:

Izapideak bertatik bertara eginez gero, jakinarazpena egintzat joko da erakunde interesdunak, edo, hala badagokio, haren legezko ordezkariak edo baimendutako pertsonak, Postaren hartu-agiria sinatzen duenean. Kasuan-kasuan ezarritako epealdia, jakinarazi beharreko egintza jaso eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da zenbatzen.

Aldiz, administrazio-prozeduretan baliabide elektronikoak, informatikoak eta telematikoak nola erabili behar diren arautu duen abenduaren 18ko 232/2007 Dekretuko 22.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, izapideak baliabide telematikoen bitartez eginez gero, jakinarazpena egintzat joko da interesdunak, edo, hala badagokio, haren legezko ordezkariak edo baimendutako pertsonak jaso izana elektronikoki sinatzen duenean. Jakinarazitako egintza aipatutako dekretuaren 23. artikuluan jasotzen den helbide elektronikoan interesdunaren esku jartzen denetik egutegiko hamar egun igarotzen direnean, interesdunak haren edukia eskuratzen ez badu, jakinarazpena ezetsitzat joko da. Horrela, izapidea egindakotzat joko da eta prozedurak aurrera egingo du, salbu eta ofizioz edo hartzaileak jakinarazita, jakinarazpena ikustea teknikoki edo materialki ezinezkoa izan dela egiaztatzen bada.

6. artikulua.- Eskabideak aurkezteko eta formalizatzeko epea.

1.- Eskabideak aurkezteko epea hogei egun naturalekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

2.- Eskabideak -eredua Agindu honen eranskinean eta jarraian adierazten den helbide elektronikoan dago- Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendariari zuzenduko zaizkio, eta Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren Erregistro Orokorrean (Donostia kalea, 1- 01010, Gasteiz), Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzan (Kale Nagusia 81, 1. solairua, Bilbao) edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan adierazitako edozein egoitzatan aurkeztuko dira.

Horrez gain, eskabideak bitarteko elektronikoen bidez aurkezteko aukera izango da. Eskabide-eredua egoitza elektroniko honetan egongo da erabilgarri:

http://www.interior.ejgv.euskadi.net/r42-avvg003/es/contenidos/ayuda_subvencion/avvg_asociaciones_2011/es_aso2011/avvg_asociaciones_2011.html.

3.- Entitate eskatzaileek berek aukeratutako hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dituzte eskabidea eta horri erantsi beharreko gainerako agiriak. Orobat, eskabidea aurkeztu izanaren ondoriozko jarduketetan, eta prozedura osoan, erakunde eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluek ezartzen dutenari jarraituz.

7. artikulua.- Baldintzak egiaztatzea.

1.- Eskabidearekin batera, erakunde interesdunek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Erakunde eskatzailearen nortasun-datuen egiaztapena.

b) Erakunde eskatzailea legez ordezkatzen duen eta eskabidea sinatzen duen pertsonaren nortasun-datuen egiaztapena (NAN, pasaportea edo antzekoa).

c) Erakundea dagokion izaera juridikoaren arabera legez eratuta dagoela eta dagokion erregistroan izena emanda dagoela egiaztatzeko agiria.

d) Erakunde eskatzailearen izenean eta hura ordezkatuz sinatzen duen pertsonaren borondatezko lege-ordezkaritzaren egiaztapena, adieraziz erakundearen izenean jarduteko ahalmena duela.

e) Proiektuaren memoria, honako hauek zehaztuz:

- Proiektuaren xedea.

- Erabilitako metodologia.

- Aurreikusitako hartzaileak.

- Zerbitzuak emateko tokia.

- Erakunde eskatzaileak genero-indarkeriaren gaian duen ibilbidea.

- Erakunde eskatzaileak genero-indarkeriaren esparruan azken hiru urteetan Euskal Autonomia Erkidegoan egindako jardueren zerrenda, erakunde publiko edo pribatuen diru-laguntzak jaso ala ez.

- Erakundeak proiektuak gauzatzeko dituen giza baliabideak, zehaztuz bereak, azpikontratatuak ala boluntarioak diren. Proiektuaren xede diren jarduerak egiteko parte hartuko dutenen lan-kategoria, proiektuari eskaintzen dioten denbora, titulazioa eta esperientzia profesionala zehaztuko dira.

- Proiektua gauzatzeko epea, gehienez ere 2011ko abenduaren 31.

f) Proiektua egiteak dakarren aurrekontu xehatua, eta diru-sail bakoitzaren banakatzea; hala badagokio, honako hauek azaldu beharko dira:

1) Langileak (nominak eta Gizarte Segurantzako gastuak).

2) Enpresen azpikontratazioak (proiektuaren aurrekontu guztiaren % 30, gehienez ere).

3) Material amortizagarria (proiektua egiteko beharrezkoak diren ekipoak erosteko edo alokatzeko gastuak, betiere proiektua hasi ondoren erosi baldin badira, proiectuaren guztizko kostuaren %10, gehienez ere).

4) Alokairuak eta errentamenduak, betiere proiektua gauzatzearekin lotura zuzena baldin badute.

5) Argitalpenak eta komunikazio-jarduerak.

6) Zeharkako gastuak: Erakundearen kudeaketak eta administrazioak, garbiketak, urak, telefonoak eta abarrek eragindako gastuak. Erakunde eskatzaileak ezin badu egiaztatu proiektua gauzatzeko aplikatu beharreko zenbatekoa, proiektuaren guztizko kostuaren % 10 aplikatuko da.

7) Beste diru-laguntza batzuk (publikoak, pribatuak), hala badagokio.

8) Erakunde eskatzaileak berak finantzatutako zenbatekoa, hala badagokio.

9) Proiektuaren guztizko kostua.

g) «Hirugarrenaren alta». Eredua erabilgarri helbide honetan:

http://www.zuzenean.euskadi.net/s68-contay/es/contenidos/autorizacion/alta_terceros/es_7999/alta_terceros.html

h) Eskatzaileek 9.a) artikuluan ezarritako aurrekontuak egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituzten agiri guztiak, baremazioa egiteko.

2.- Betekizunak frogatzeko modua helbide elektroniko honetan zehaztuko da:

http://www.interior.ejgv.euskadi.net/r42-avvg003/es/contenidos/ayuda_subvencion/avvg_asociaciones_2011/es_aso2011/avvg_asociaciones_2011.html

3.- Eskabideetan, aukera egongo da eskatzaileak berariazko baimena eman dezan dokumentazioaren zati bat laguntza kudeatzen duen organoak egiazta dezan, herri-administrazioei dagozkien egiaztatze-, kontrol-, eta ikuskatze-eskumenen kalterik gabe.

4.- Laguntza eskatzen duen erakundeak, ondoren zehazten diren betebeharrak betetzen dituela frogatzeko, erantzukizunpeko adierazpena baliatu ahal izango du, eskabidean bertan ageri den ereduaren arabera:

Eskatzailea ez dago sartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek ematen dituzten mota bereko diru-laguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari den itzultze- edo zigor-prozedura batean.

Pertsona edo erakunde eskatzaileak ez du jaso laguntza eta diru-laguntza publikoak eskuratzea eragozten dion zehapenik, ez administrazio-bidekorik, ez zigor arlokorik, eta ez dauka legez debekatuta halakorik eskuratzea (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean sexuaren ziozko bereizkeria zehatzeko ezarritako zigor eta debekuak ere kontuan hartuta).

Beste edozein administrazio, erakunde publiko edo pribatuk helburu bererako emandako diru-laguntzak, laguntzak, dirua edo baliabideak eskatu eta, hala badagokio, eskuratuz gero, horren berri ematea.

5.- Laguntzen eskatzaileek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatzen duen dokumentazioa automatikoki egiaztatuko du, behar beste aldiz, organo kudeatzaileak, eta horretarako ez du eskatzaileen baimenik beharko, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren aldaketa aplikatuz.

8. artikulua.- Eskabideetako akatsak zuzentzea.

1.- Diru-laguntzak lortzeko eskabidea oso-osorik betetzen ez bada, edo eskabidearekin batera nahitaezko dokumentazioa aurkezten ez bada, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak hamar eguneko epean (dagokion jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita) akatsa zuzentzeko eskatuko dio interesdunari. Hori egin ezean, eskaerari uko egin diola adieraziko zaio. Administrazioak, ordea, eskaeraren gaineko ebazpena eman eta jakinarazi egin behar du berariaz, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.1 eta 42.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

2.- Aurreko paragrafoan xedatutakoari kalterik egin gabe, erakunde eskatzaileari falta den beste edozein betekizun edo izapide betetzeko eskatu ahal izango zaio, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 76. artikuluan ezarritakoaren arabera. Horretarako hamar egun balioduneko epea emango zaio, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, eta berariaz ohartaraziko zaio, eskatutakoa bete ezean, dena delako izapidea betetzeko duten eskubidea indargabetua jo daitekeela. Onartu egingo da erakunde interesdunaren jarduna eta legezko ondorioak izango ditu, baldin eta epea amaitutzat ematen duen ebazpena jakinarazi baino lehen edo egun horretan bertan egiten badu.

9. artikulua.- Aurkeztutako proiektuak balioesteko eta haztatzeko irizpideak.

1.- Agindu honetan ezarritako diru-laguntzak emateko prozedura norgehiagoka-araubidearen arabera izapidetuko da, eta kalifikazio-epaimahaiak proiektuak baloratzeko fasean emandako puntuazioa kontuan hartuta egingo da.

2.- Diru-laguntzak emateko, eskabidean jarraian adierazten diren baldintzak betetzen diren baloratuko da. Gehienez ere ehun (100) puntu lor daitezke, irizpide hauen arabera banatuta:

a) Proiektua arrazoitzea eta helburuak zehaztea: kontuan hartuko da proiektua oinarri argi eta zehatzarekin aurkeztea, bai eta aurkeztutako proposamenak egokiak izatea ere, ezarritako helburuak betetze aldera (helburuak, metodologia, aurrekontuak eta ebaluazio-adierazleak). Gehienezko puntuazioa: 20 puntu.

b) Proiektuaren originaltasuna: Balorazio berezia izango dute landuko duten esparruan berritzaileak diren proiektuek. Gehienezko puntuazioa: 20 puntu.

c) Proiektuaren garapena: Proiektuan jasotako jardueren deskribapena eta zehaztasuna baloratuko dira, bai eta erakunde eskatzaileen egitura eta kudeatzeko gaitasuna ere; alegia, erakunde eskatzaileak proiektua gauzatzeko dituen baliabide teknikoak eta giza baliabideak, (jarduerak egiteko aurreikusi den taldeak genero-ikuspegiaren gainean duen prestakuntza teorikoa eta lanbide-profila) eta baliabide materialak. Horrez gain, onuradun-kopurua eta gauzatze-egutegia ere baloratuko dira. Gehienezko puntuazioa: 30 puntu.

d) Proiektuaren finantziazioa: kontuan izango da programak kofinantziazio publiko edo pribatua lortu duen edo lortzeko aukera duen, eta, bereziki, erakundeak berak kofinantziatuta aurkeztutako proiektuak baloratuko dira. Gehienezko puntuazioa: 10 puntu.

e) Jarraipen-proiektuak: kontuan hartuko dira aurreko urteetan diru-laguntza jaso duten eta jarraipena behar duten proiektuak, behin diru-laguntza eman zuen erakunde publikoak zehatz-mehatz baloratu ondoren proiektuari jarraipena eman eta proiektua egonkortu beharra dagoela, bai lortutako emaitzengatik bai hartzaileentzat duen garrantziagatik. Gehienezko puntuazioa: 10 puntu.

f) Erakunde eskatzailearen ezarpen-maila, antzinatasuna eta espezializazioa: Bereziki baloratuko dira genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta, laguntza, babesa, laguntza juridikoa eta psikologikoa ematen eta genero-indarkeriaren gaian prebentzioa eta sentsibilizazioa lantzen ibilbide, ezarpen sozial, antzinatasun eta espezializazio handiena duten erakundeak. Gehienezko puntuazioa: 10 puntu.

3.- Artikulu honen 2. paragrafoan jasotako balorazio-irizpideei jarraituz eskabideen lehentasun-ordena ezarri ondoren, laguntzak esleituko dira puntuazio-hurrenkerari jarraituz, agindu honen 3. artikuluan ezarritako diru-kopurua agortu arte.

4.- Balorazio orokorrean berrogeita hamar (50) puntu baino gutxiago lortzen dituzten eskabideak ez dira diruz lagunduko. Agindu honetan ezarritako prozedura amaitzen duen ebazpenean, hala badagokio, aipatutako gutxieneko puntuazioa ez lortzeagatik diru-laguntzarik gabe geratu diren proiektuen zerrenda jasoko da.

5.- Erakunde bakoitzak proiektu edo programa bat baino gehiago aurkeztu ahal izango ditu, betiere horietako bakoitzak helburu desberdina badu.

6.- Ebazpenean, erakunde onuradunen zerrenda jasoko da, eta erakunde bakoitzari diruz lagunduko zaizkion proiektuak eta bakoitzari emandako zenbatekoak zehaztuko dira. Horrez gain, ordezko erakunde eskatzaileen zerrenda jasoko da, hurrenkeran, onuradunen batek uko egiten badu ere, betiere balorazioan 50 puntu edo gehiago lortu badituzte. Erakunde horiei dagokienez, ordezkapena egiteko hurrenkeraren arabera zerrendatuko dira, proiektuak adieraziko dira eta, era berean, onuradunak uko eginez gero, ordezkoaren laguntzak izan lezakeen gehieneko zenbatekoa azalduko da; nolanahi ere, zenbateko hori ez da sekula ere izango uko egin duen onuradunari esleitutakoa baino handiagoa.

10. artikulua.- Diruz lagun daitezkeen gastuak.

1.- Aurkeztutako proiektuen artean, zuzenean proiektua gauzatzeko diren gastuak eta proiektuaren memorian deskribatuta azaltzen direnak soilik lagundu ahal izango dira diruz; egindako gastutzat hartuko da 2011ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean ordaindutakoa.

2.- Zeharkako gastutzat hartuko dira funtzionamendu gastu arruntak, erakunde eskatzaileak aurkezten duen jardueraren aurrekontu xehatu eta zehatzean agertzen direnak, baldin eta zalantzarik gabe jarduera horren garapenari lotuta badaude. Gastu horiek ezingo dira ezein kasutan proiektuaren kostu osoaren % 10 baino handiagoak izan.

3.- Proiektuan jarritako langileen soldatak diruz lagundu ahal izango dira, kasuan-kasuan dagokion dedikazioaren proportzioan (osoa edo partziala). Langileen gastuetan Gizarte Segurantzaren enpresa-kuota sartuko da.

4.- Ezin izango da diruz laguntzeko moduko gastutzat hartu BEZaren zenbateko kengarria, erakunde eskatzaileak zerga horren aitorpena egin beharra duenean.

5.- Erakunde eskatzaileak aurkezten duen aurrekontuan artikulu honen arabera diruz ez laguntzeko moduko gastutzat jotzen direnak agertzen badira, epaimahai kalifikatzaileak ez ditu kontuan hartuko diruz laguntzeko moduko gastuen aurrekontua zehazteko. Era berean, aurrekontu hori kontuan hartuko da ebazpen-proposamenean jasoko den diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko.

6.- Errentamendu eta kanonei dagokienez, zuzenean proiektuaren helburu den jarduerarekin, eta harekin bakarrik, erlazionatuta badaude bakarrik lagundu ahal izango dira diruz.

7.- Diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko dira zerbitzuak (profesional independenteak...) azpikontratatzekoak, baldin eta proiektuaren zenbateko osoaren % 30 gainditzen ez badute.

11. artikulua.- Epaimahai kalifikatzailea.

1.- Aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko epaimahai kalifikatzailea eratuko da. Hauek izango dira bertako kideak:

a) Batzordeburua: Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzako teknikari bat, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendariak izendatua.

b) Epaimahaikideak: Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzako bi teknikari, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendariak izendatuak.

c) Idazkaria: Herrizaingo Saileko funtzionario bat, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendariak izendatua; hitz egin ahal izango du, baina botoa eman ez.

2.- Epaimahai horrek gehiengo soilez hartuko ditu erabakiak, agindu honetako 9. artikuluan diru-laguntzak esleitzeko ezarritako irizpideei jarraiki. Proiektuen ebaluazioaren emaitza zehaztuko duen txostena egin ondoren, arrazoitutako ebazpen-proposamena emango du, eta Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendariari aurkeztuko dio.

12. artikulua.- Ebazpena.

1.- Epaimahai kalifikatzaileak egindako proposamena ikusita, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendariak diru-laguntzen esleipenari buruzko ebazpena emango du.

2.- Ebazpena emateko eta erakundeei jakinarazteko epea (onuradunak izan zein ez) bi hilabetekoa izango da, agindu hau argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita. Ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie erakundeei, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 58. eta 59. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz. Era berean, hala badagokio, baliabide telematikoen bidez jakinaraziko zaie, administrazio-prozeduretan bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoen erabilera arautzen duen abenduaren 18ko 232/2007 Dekretuaren 21., 22., eta 23. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Salbuespen gisa, ebazpena emateko eta jakinarazteko gehienezko epe hori zabaltzea erabaki daiteke, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42.6 artikuluan ezarritako eran eta bertan adierazitako mugak kontuan hartuta.

3.- Artikulu honen 2. paragrafoan aipatutako epea amaituta, interesdunari ez bazaio ebazpena jakinarazi, eskabidea ezetsitzat joko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

4.- Onartutako laguntzak, onuradunak zeintzuk diren eta esleipen-hurrenkera adierazita, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, interesatuei jakinarazpena egiten zaien hiruhileko naturalaren ondorengo hilabetean. Ebazpen horretan, era berean, 50 puntu edo gehiagoko balorazioa izan arren kreditua agortzeagatik diru-laguntzaren onuradun izan ez diren erakundeen ordezko zerrenda bat argitaratuko da, puntuazioaren hurrenkeran. Halaber, agindu honetan ezarritako gutxieneko puntuazioa ez lortzeagatik onuradun izan ez diren erakundeen zerrenda argitaratuko da.

5.- Artikulu honen lehenengo paragrafoan aipatutako ebazpenak ez du administrazio bidea agortzen, eta haren aurka interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Herrizaingoko sailburuari, jakinarazpena egin eta biharamunetik hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz.

13. artikulua.- Diru-laguntzen bateragarritasuna.

1.- Agindu honetako laguntzak bateragarriak dira Administrazio honek edo beste edozeinek, publikok zein pribatuk, xede eta helburu bererako, eman ditzakeen beste diru-laguntza batzuekin. Nolanahi ere, jasotako diru-laguntzen zenbateko osoak ez du gainditukо diruz lagundu beharreko jardueraren zenbateko osoa.

2.- Bestelako diru-laguntzekin bateratzean, horien zenbateko osoak gainditukо balu diruz lagundutako jardueraren kostu osoa, soberakin hori bateraezintzat joko da eta eman beharreko laguntzaren zenbatekoari murriztuko zaio gainditzen duen zenbatekoa.

14. artikulua.- Erakunde onuradunen betebeharrak.

Agindu honetan araututako laguntzen onuradun diren erakundeen betebeharrak:

- Erakunde onuradunek, diru-laguntza onartuz, agindu honetan ezarritako arau guztiak onartzen dituzte, bai eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan ezarritako erlazio-bermeak eta itzulera eta zehapenen erregimena ere.

Diru-laguntza emango dela jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hamabost eguneko epean, erakunde edo elkarte onuradunek ez badiote berariaz eta idatziz uko egiten laguntzari, onartu egin dela ulertuko da. Kasu horretan, agindu honen 9.6 artikuluan xedatutakoa beteko da.

- Diru-laguntza eman izanaren oinarrian dagoen jarduera egitea, deialdi honetan ezarritako modua, baldintzak eta epea betez.

- Proiektuaren eduki nagusia osatzen duten jarduerak zuzenean kudeatu eta egitea, dituzten ezaugarriak direla-eta azpikontratatu egin behar direnak izan ezik. Azpikontratatutako gastuek, betiere, ez dute diruz lagundutako proiektuaren kostu osoaren 100eko 30 gainditukо.

- Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak onartutako zenbatekoa justifikatzea, agindu honen 2. artikuluan xedatutakoaren arabera. Gastuaren egiaztagiriekin batera ordainketen ziurtagiriak aurkeztuko dira beti.

- Egindako programa edo jardueraren memoria zehatza egitea, egindako sarreren eta gastuen aurrekontuarekin batera. Gastua justifikatzeko, jatorrizko fakturak edo Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak konpultsatutako fotokopiak eta, horiekin batera, ordainketen ziurtagiriak aurkeztuko dira, diruz lagundutako jarduerak bukatu eta hurrengo hilabetearen barruan, eta, betiere, 2011ko abenduaren 31 baino lehenago. Frogagiri horiek Herrizaingo Saileko Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzari bidali beharko zaizkio, 2012ko urtarrilaren 16a baino lehen.

- Herrizaingo Sailak egingo dituen egiaztapenen menpe eta Ekonomi Kontroleko Bulegoak burutuko duen ikuskaritzaren menpe egotea, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura eskuratu diren laguntza edo diru-laguntzei dagokienez. Era berean, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren araudi bereziko neurrien menpe ere egon beharko dute.

- Beste edozein administrazio, erakunde publiko edo pribatuk helburu bererako emandako diru-laguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak eskuratuz gero, horren berri ematea Herrizaingo Sailari.

- Diru-laguntza emateko kontuan hartutako edozein gorabehera objektibo zein subjektibo aldatuz gero, horren berri ematea Herrizaingo Sailari.

- Diru-laguntzaren helburu diren proiektuek giza baliabideak eta pertsonen arteko bizikidetasun-balioak errespetatu beharko dituzte; ondorioz, proiektu horiek ezingo dute herritarrentzat iraingarria den, haien duintasunari kalte egiten dion edo indarkeriaren justifikazioa iradokitzen duen ikur edo elementurik erabili.

- Egindako proiektuan berariaz adieraztea Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saileko Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren laguntza.

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 18.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, agindu honen eraginez egindako txosten, proiektu eta gainontzeko testu idatzietan hizkera ez-sexista erabiliko da.

15. artikulua.- Diru-laguntza ordaintzea.

Diru-laguntzak ordainketa bakarrean ordainduko dira, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzan diruz lagundutako jarduera guztiak egin direla justifikatu ondoren. Horretarako, 14. artikuluan aipatutako frogagiriak aurkeztuko dira, diruz lagundutako jarduerak bukatu eta beranduenez 2012ko urtarrilaren 16an.

16. artikulua.- Baldintzak aldatzea.

1.- Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatzen badira, diru-laguntzak emateko ebazpena ere alda daiteke, betiere diru-laguntzaren helburua beteta dagoela ulertzen bada eta, hala dagokionean, aldi berean beste edozein erakunde publiko nahiz pribatuk emandako diru-laguntzak eta laguntzak jaso badira, eta, betiere, diru-laguntzaren onuradun izateko agindu honetan ezarritako gutxieneko betekizunak bete badira. Ondorio horietarako, epaimahai kalifikatzaileak proposatuta, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendariak dagokion ebazpena emango du, emandako diru-laguntzen zenbatekoak egokitzeko.

2.- Erakunde onuradunak, salbuespen gisa, diruz lagundutako jardueraren edukia aldatzeko eska dezakete, baita jarduera gauzatzeko eta dagozkion gastuak justifikatzeko modua eta epeak ere, jardueraren garapena aldatu eta zailtzen dituzten gorabeherak azaltzen direnean, eta aldaketa horiek baimendu egin ahal izango dira, hirugarrenen eskubideak kaltetzen ez badira. Aldatzeko eskaeretan behar beste arrazoitu beharko da zergatik aldatzen edo zailtzen den jardueraren garapena, eta eskaera horiek Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendariari aurkeztu beharko zaizkio, aldaketa justifikatzen duten arrazoiak agertu eta berehala eta, betiere, proiektua gauzatzeko epea bukatu baino lehen. Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendariak, eskaera erregistroan sartu eta hilabeteko epean, aipatutako aldaketa baimentzea bidezkoa den edo ez ebatziko du. Epe hori igaro ondoren ez bada berariazko ebazpenik eman eta jakinarazi, eskaera onartutzat joko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 43.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. Ebazpen horren aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Herrizaingoko sailburuari, jakinarazpena egin eta biharamunetik kontatzen hasita hilabeteko epean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz.

17. artikulua.- Diru-laguntza emateko baldintzak ez betetzea.

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onetsi zuen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuan ezarritako kasuetan ez ezik, honako kasu hauetan ere ulertuko da ez direla baldintzak bete:

a) Jasotako diru-laguntza hasierako proiektuan azaltzen zen jarduerarako barik beste baterako erabiltzea osorik edo partez.

b) Aurkeztutako proiektuan aldaketak sartzea, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendariak baimendutako aldaketen kasuan izan ezik, aurreko artikuluan ezarritakoa dela bide.

c) Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak onartutako kopurua osorik justifikatuta ez egotea.

d) Aurkeztutako eskaeran edo agirietan jaso eta diru-laguntza emateko balio izan duten datuak benetakoak ez izatea.

2.- Diru-laguntzaren onuradunak diru-laguntzak emateko ebazpenean edo agindu honetan ezarritako baldintzaren bat bete ezean, prozedura-izapide egokiak bideratu ondoren, laguntza jasotzeko eskubidea galduko du, eta, hala badagokio, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari dagoeneko jasotako zenbatekoak itzuli beharko dizkio, legezko interesekin, bidezkoak izan daitezkeen gainerako egintzen kalterik gabe. Hori guztia, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan –Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura emandako diru-laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko araubide orokorra arautu, eta, era berean, diru-laguntzon kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintza, araubide eta betebeharrak ezartzen ditu– eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz.

18. artikulua.- Dirua itzultzeko prozedura.

1.- Agindu honetan aurreikusitako ez-betetze kasuetan, hau izango da jasotako diru-laguntzak itzultzeko prozedura:

a) Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendariak dirua itzultzeko prozeduraren hasiera eta prozedura zein arrazoitan oinarritzen den jakinaraziko dio erakunde interesdunari, eta erakundeak egokitzat jotzen dituen alegazioak egiteko 15 eguneko epea emango dio. Prozedura hasitakoan geldiarazi egingo dira egin barik dauden ordainketak, halakorik izanez gero.

b) Alegazioak jaso ondoren, edo epea igaro eta alegaziorik egin ez bada, amaitutzat emango da prozedura Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendariaren ebazpen bidez.

2.- Diru-laguntza itzultzeko prozedura gehienez ere sei hilabetean ebatziko da.

3.- Ebazpenean ez-betetzeren bat izan dela iritziz gero, diru-laguntza jasotzeko eskubidea galdutzat emango da, eta, hala badagokio, ebazpena jakinarazten denetik hasita gehienez bi hilabeteko epean, dagozkion diru-kopuruak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharra ekarriko du. Epe hori borondatezko epealditzat joko da.

4.- Dirua borondatezko epealdian itzultzen ez bada, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saileko Ogasun eta Finantza Sailburuordetzari jakinaraziko zaio, aplikatu beharreko lege-araudian ezarritakoaren arabera jardun dezan.

19. artikulua.- Diruz lagundutako proiektu edo jardueraren jarraipen eta kudeaketarako organoa.

1.- Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzari dagokio agindu honen babesean egindako diru-laguntza deialdia kudeatzeko lanak gauzatzea.

2.- Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak egokitzat jotzen dituen egiaztapenak egin ahal izango ditu, emandako diru-laguntzaren inguruan, eta eskura izango ditu horren gaineko frogagiriak.

20. artikulua.- Datuen babesa.

Eskaeran jasotako datu pertsonalak Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren titulartasuneko fitxategi batean sartuko dira. Fitxategiaren izena Herrizaingo Saileko Genero-indarkeriaren Biktimentzako Laguntza izango du, eta datuak arau hauetan ezarritako babesa izango dute: Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa eta Herrizaingoko sailburuaren 2010eko abenduaren 20ko Agindua, Herrizaingo Sailak eta hari atxikitako Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia erakunde autonomoak dituzten datu pertsonalen fitxategi automatizatuak arautzen dituen 2003ko irailaren 2ko Agindua hirugarrenez aldatzen duena (EHAA, 246. zk., 2010eko abenduaren 24koa). Diru-laguntza eskaera aurkeztuta, erakunde eskatzaileak baimena ematen du datuok modu automatizatuan erabiltzeko eta, era berean, datuok epaimahai kalifikatzaileari lagatzeko, hark ebaluazio-, jarraipen- eta kontrol-zereginak bete ditzan.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.- Izapidetze elektronikoari buruz agindu honetan ezarritakoa aplikatuko da, baldin eta dagokion baliabide informatikoa prest badago.

Bigarrena.- Agindu honetan ezarri ez diren prozedurazko alderdi guztietarako, azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakora joko da (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen testua).

Hirugarrena.- Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendariari ahalmena eman zaio agindu hau garatzeko eta betearazteko behar diren jarduera guztiak egin ditzan.

Laugarrena.- Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du; haren aurka, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Herrizaingoko sailburuari, hilabeteko epean, edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, bi hilabeteko epean. Epeok ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasiko dira kontatzen.

Bosgarrena.- Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko uztailaren 11.

Herrizaingoko sailburua,
RODOLFO ARES TABOADA.

GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMEI LAGUNTZA, ELKARTASUNA ETA ARRETA BULTZATZEN DUTEN ERAKUNDE ETA ELKARTEEK PROIEKTUAK GARATZEKO LAGUNTZA LORTZEKO ERANSKINA

Izartxoa (*) duten datu guztiak nahitaez bete behar dira

ERREGISTROAREN DATUAK / IZENA EMATEN DUEN ERROLDA

Erregistroaren izena / Errolda: *

Erregistro data: * _____ **Erregistroaren zenbakia: *** _____

Estatutuek elkartearen helburua hurrengoa dela jasotzen dute (hitzez hitz kopiatu): *

ZUZENDARITZA PARTAIDEAK *

Taldeko Aginte Organo/Entitatearen Zuzendaritza Batzordeko kideak, eskabidearen datan indarrean eta erregistroan edo erroldan erregistratuta egonik, honako hauek dira, (hitzez hitz kopiatu, izenak eta karguak adieraziz. Erakundearen estatutuak taldeko Aginte Organo bat existitzea aurreikusten ez badu, lehendakaritza, idazkaritza eta altxortegia osatzen duten pertsonen izenak eta karguak adierazi):

Izena	Kargua
	Lehendakaria

PROIEKTUAREN DATUAK

Proiektuaren izenburua: * _____

Proiektuaren guztizko kostua: * _____

A) PROIEKTUAREN MEMORIA * (Lerro hauetan memorian kontuan hartuko diren puntu esanguratsuenak bilduko dira)

a) Proiektuaren justifikazioa:

b) Proiektuak jarraitzen dituen helburuak:

c) Proiektu honek berrikuntzaren bat ekartzen duen adierazi:

d) Proiektua egingo den modua adierazi:

e) Proiektu honek jarraipen asmoa dauka?: ◯ BAI ◯ EZ

f) Sexu indarkerian eskaera erakundearen ezarpen eta espezializazio neurria zehaztu:

B) PROIEKTUAREN MEMORIA EKONOMIKOA (Proiektuaren memorian egor behar den memoria ekonomikoaren laburpena, arau Erregulatzailearen 7.f artikuluan adierazten den bezala)

1. Proiektuaren gastuak

1. Langileak (nominak eta Gizarte Segurantzako gastuak)	
2. Enpresen azpikontratazioa (proiektuaren aurrekontu ososaren %30a baino gehiago ez)	
3. Material amortizagarria (proiektua egiteko beharrezkoak diren ekipoak erosteko gastuaren edo alokatzeko gastuaren amortizazioa finantzatuko da, betiere proiektuaren hasiera-egunaren ondoren erosi badira, proiektuaren guztizko kostuaren %10, gehienez ere)	
4. Alokairuak eta errentamenduak, betiere proiektua gauzatzearekin lotura zuzena baldin badute	
5. Argitalpenak eta komunikaizo-jarduerak	
6. Zeharkako gastuak (Halakotzat hartzen dira erakundearen kudeaketak eta administrazioak eratorritako gastuak, garbiketa, ura, elektrizitatea, telefonoa… Erakunde eskatzaileak ezin badu egiaztatu proiektua gauzatzeko aplikatu beharreko zenbatekoa, proiektuaren guztizko kostuaren %10 aplikatuko da)	
Proiektuaren kostua guztira	

2. Proiektuaren finantziazioa

2.1. Entitatearen ekarpena: _____

2.2. Proiektua garatzeko, ebatzitako diru-laguntzak (beste entitate pribatu edo publiko batzuen eskutik)

Entitatea	Zenbatekoa	Ebazpenaren data
Guztira		

2.3. Eskatutako diru-laguntzak proiektua garatzeko ebazteko zain daudenak (entitate publiko edo pribatuen eskutik)

Entitatea	Zenbatekoa
Guztira	

2.4. Proiekturako ekarpen partikularrak

Bazkideak / Erabiltzaileak	Emandako kantitatea
Guztira	

2.5. Beste diru-sarrera batzuk (Finantziazio-iturria / Emandako kantitatea adierazi)

Finantziazio-iturriak	Emandako kantitatea
Guztira	

(Titularraren edo ordezkariaren sinadura)

GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMEI LAGUNTZA, ELKARTASUNA ETA ARRETA BULTZATZEN DUTEN ERAKUNDE ETA ELKARTEEK PROIEKTUAK GARATZEKO LAGUNTZA LORTZEKO ESKABIDEA

Izartxoa (*) duten datu guztiak nahitaez bete behar dira

ESKABIDEA AURKEZTEN DUENA * 1

◯ Titularra ◯ Ordezkaria

DATU PERTSONALAK

TITULARRA

Izena / Erakundearen Izendapena *

Dokumentu Mota *

Lehen Abizena *

Bigarren Abizena *

Zenbakia * - LETRA

Tel. Finkoa

Tel. Mugikorra

Sexua * ◯ Gizona ◯ Emakumea

ORDEZKARIA

Izena / Erakundearen Izendapena

Dokumentu Mota

Lehen Abizena

Bigarren Abizena

Zenbakia - LETRA

Tel. Finkoa

Tel. Mugikorra

Sexua ◯ Gizona ◯ Emakumea

JAKINARAZPENA * 2

◯ Elektronikoa ◯ Posta bidez

HELBURU POSTALETARAKO (Posta bidezko jakinarazpenetarako soilik) *

Herrialdea *

Helbidea *

Zk **Pisua** **Letra**

PK *

Udalerria *

Lurraldea *

JAKINARAZPEN ELEKTRONIKOENTZAT 3

Posta elektronikoa (puntu eta koma (;) bitartez bereiziak)

Mugikorraren telefono zenbakia (puntu eta koma (;) bitartez bereiziak)

JAKINARAZPENAK ETA OHARRAK JASO NAHI DIREN HIZKUNTZA *

◯ Euskera ◯ Gaztelania

BESTELAKO DATU INTERESGARRIAK

Titularraren betebehar fiskalen informazioa duen Zerga Administrazioaren Lurraldea / Probintzia *

_____

ERANTZUNKIZUNPEKO ADIERAZPENAK

☐ Ez naiz laguntzarik jasotzen ari xede eta helburu berarekin Administrazio Publikoen edo erakunde pribatuen eskutik.

☐ Administrazio Publiko edo erakunde pribaturen bati laguntza bat eskatu diodala eta eman didatela (atal honen datuak Eranskinean zehaztu beharko dira)

☐ Administrazio Publiko edo erakunde pribaturen bati laguntza bat eskatu diodala eta oraindik erantzunaren zain nagoela (atal honen datuak Eranskinean zehaztu beharko dira)

Erakunde eskatzailea legalki eratuta eta behar bezala erregistratuta dagoela ondoko administrazio-erregistro edo erroldan: *

Diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zigor- edo administrazio-arloko zigorrik ez daukat, eta ez nago laguntza horiek jasotzeko ezgaitzen nauten lege-debekuen eraginpean, beren beregiko erreferentzia egiten zaielarik Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko azken xedapenetako seigarrenaren arabera sexu-diskriminazioa egin izanagatiko lege-debekuei.

Ez nago sartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta horren erakunde autonomoek emandako ezaugarri bereko beste laguntza edo diru-laguntza batzuen esparruan hasi zen eta oraindik bideratzen ari den itzultzeko edo zigortzeko ezein prozeduratan.

Eskabide honetan bildutako eta eskabideari erantsitako dokumentazioan bildutako datuak egiazkoak dira.

Laguntza hauen onuradun izateko indarrean dagoen legediak ezarritako baldintzak betetzen ditut.

ADOSTASUNAK

Nortasun datuak

☐ Dealdi honen atal kudeatzaileari dagokion Administrazioan baliabide elektronikoen bidez, edo bere kasuan, aukeran dauden baliabideen bidez, egiaztatzeko, baieztatzeko edo ziurtatzeko baimena ematen diot.

DATU PERTSONALAK BABESTEKO LEGEA

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa betez, Eusko Jaurlaritzaren **Herrizaingo Sailaren Genero-Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak** jakinarazten dizu eman dituzun eta zure eskabidean agertzen diren datuak **Genero-Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Baliabideak** izeneko fitxategian sartu direla. Eusko Jaurlaritzaren **Herrizaingo Sailaren Genero-Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak** da fitxategi horren titularra, eta laguntza emateko espedienteak kudeatzea du helburu. Aldez aurretik, Datuak Babesteko Agentziari emango zaio horren berri, hark baitauzka datuen segurtasun osoa bermatzeko behar diren segurtasun-neurriak. Datu horiek, bestalde, ez zaizkie beste pertsona batzuei jakinaraziko, legeak bideratutako kasuetan izan ezik. Datu pertsonalen babesari buruz indarrean dauden arauei jarraiki, eskatzaileak badu sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideez baliatzea, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoak berariaz aitortzen duen bezala. Horretarako, baduzu Eusko Jaurlaritzaren **Herrizaingo Sailaren Genero-Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzara** jotzea (Donostia kalea, 1, 01010, Gasteiz).

Administrazio Publikoak erkatu ahal izango ditu adierazitako datuak eta berariazko egiaztapenak egin ahal izango ditu laguntzak behar bezala esleitzeko.

_____ (e)n _____ (e)an

(Titularraren edo ordezkariaren sinadura)

ESKABIDEAREN ARGIBIDEAK

1 ESKABIDEA AURKEZTEN DUENA

Eskatzaileak bere izenean jokatzen badu, "ESKABIDEA AURKEZTEN DUENA" atalean "Titularra" aukeratu behar du eta "DATU PERTSONALAK" atalean Titularrari dagozkion datuak bete. Eskabidea titularrak sinatzen du.

Eskatzaileak beste pertsona baten ordezkari gisa jokatzen badu, "ESKABIDEA AURKEZTEN DUENA" atalean "Ordezkaria" aukeratu behar du eta, "DATU PERTSONALAK" atalean, Titular bezala ordezkatzen duen pertsonaren datuak bete behar ditu eta berea datuak Ordezkarian. Eskabidea ordezkariak sinatzen du.

Pertsona juridikoak, beti jokatzen dute ordezkari gisa, beraz, "ESKABIDEA AURKEZTEN DUENA" atalean "Ordezkaria" aukeratu behar du eta, "DATU PERTSONALAK" atalean, Titular bezala ordezkatzen duen pertsonaren datuak bete behar ditu eta berea datuak Ordezkarian. Eskabidea ordezkariak sinatzen du.

2 JAKINARAZPENA

Eskatzaileak jakinarazpenak zein kanaletik jaso nahi dituen aukera dezake: posta bidez edo elektronikoa.

POSTA BIDEZ: "HELBURU POSTALETARAKO" atalean adierazitako helbidera igorriko zaizkio jakinarazpenak

ELEKTRONIKOA: eskatzaileak jakinarazpenak **www.euskadi.net/nirekudeaketak** -eko "Nire gestioak" ataleko sarrera ontzian jasotzen ditu. "Nire gestioak" atalean sartzeko beharrezkoa izango da eskatzaileak indarrean dagoen ziurtagiri elektroniko bat izatea (ONA, Dnie, Herritar Ziurtagiria, Erakunde Ziurtagiria, FNMT, ...)

3 JAKINARAZPEN ELEKTRONIKOENTZAT

Eskatzaileak jakinarazpen elektronikoak jasotzea erabaki badu, admisnitrazioak posta elektroniko edo mugikor bidezko zerbitzu bat jartzen du zure eskura, jakinarazpen bat bidaltzen dizun bakoitzean zu ohartarazteko.

Nahi dituzun posta elektroniko edota mugikor zenbaki idatz ditzakezu, kasu bietan datu bakoitza puntu eta koma (;) bitartez bereiziz.